



390

2014ko udaberria - 13. zenbakia

Goizuetako
aldizkaria

**Menditik
eta kaletik,
Goizueta beti**





zenbaki honetan



aurkibidea

- **3**..... Aurkezpena
- **4-6**..... Bidaia: Brasil
- **7-11**..... Azaro kulturala
- **12**..... Atzera begira: 1972
- **13-16**..... Goizueta iruditan
- **17**..... Elkarrizketa: Luis Miguel Apeztexea
- **18-19**..... Euskaraz irakurtzea
- **10-21**..... Goizuetarren izenak
- **22**..... Elkarrizketa: Nuria Collomer
- **23**..... Ezetz asmatu
- **24-25**..... Ipuin erotikoa
- **25**..... Errezeta: Arrain-zopa
- **26**..... Bertso txokoa
- **27**..... Inkesta
- **28**..... Zure txanda

• **Argitaratzailea:**
Goizuetako kultur taldea eta Goizuetako Udalaren Euskara Zerbitzua

• **Diseinua:**
Allende Arnaiz

• **Maketazioa:**
astidiseinua.com



Menditik eta kaletik, Goizueta beti

XAPO aldizkariaren XIII. zenbakia duzu honakoa. Goizuetako kultur taldeak eta udaleko euskara zerbitzuak egiten duten aldizkaria duzu XAPO eta, ezinbestean, kultura eta euskara dituzu, besteak beste, aldizkariko protagonista. Horien inguruko lanak eta erreportajeak dituzu aldizkarian, kultura eta euskara direlako Goizuetako herria den bezalakoa mantentzeko bi ardatz garrantzitsu; baina badituzu bestelakoak ere, herriari eta herritarroi interesatzen zaizkigun gauza gehiago ere badaudelako.

Zenbaki honetan zer? Bada, ohiko atalak aurkituko dituzu, aldizkarian finko bihurtu direnak: bidaiak-kronika; duela urte batzuk gertatuak gogora-

razten dituen atzera begirako atala; Goizueta iruditan; goizuetarren argazki zaharrak; ipuin erotikoa; azkeneko azaro kulturalaren kronika; bertso txokoa; inkesta; eta Zure Txanda atala, azken orrialdekkoa hain zuzen ere. Horiek ohikoak dira gurean, eta goizuetarrak eta Goizueta herria bera izaten dituzte protagonista.

Horiez gain, oraingoan beste kontu batzuk ere ekarri ditugu. Azaro kulturean arrain-zoparen inguruko jarduera arrakastatsu bat egin zen, eta errezeta hura hona ekarri dugu. Gainerako atalak, berriz, hizkuntzarekin nahikoa lotutakoak dira. Euskaraz irakurtzeari buruzko artikulutxo bat idatzi dugu, goizuetarren izenei buruz-

ko beste bat, eta herriko bizitzan nola baiteko protagonismoa duten bi pertsonari elkarrizketatxo bana egin diegu. Biak ere jatorriz erdaldunak izan arren, euskaraz ulertzeko eta neurri batean behintzat egiteko ere moldatzen dira, eta euskararekin duten harreman horren gainean galdetu nahi izan diegu.

Horiek, beraz, XAPO honen edukiak. Herrirako aldizkaria duzu, denon gustukoa izan dadin nahiko genuke eta, esan beharrik ez dago, hurrengo zenbakietarako herritar guztien ideiak eta ekarpenak pozik hartuko genituzke. Besterik gabe, zoaz hurrengo orrialdeetara, eta murgildu zaitez herriko jakingarri horietan guztietan.

Brasil

740 biztanleko Goizuetatik 11 milioi laguneko Sao Paulo-ra joan ziren Igor eta Nekane 2013ko ekainean eta Igorrek oraindik han jarraitzen du. Ikus dezagun zertan dabilen edo ibili diren munduko hiri handienetako batean!


- **Zertara joan zineten Brasilerara?**

IGOR: CAF-eko proiektu bat atere zen São Pauloko metroko tren batzuk erreformatzeko. Ni apuntu nitzan proiektu hortan parte hartzeko ta aukeratutako bat izandu nitzan. Gure lana zen bertako langileri formazio bat eman ta trenak nola erreformatu erakustera.

NEKANE: Ni momentu hortan lanik gabe nengon ta beste bizi esperientzia bat bizitzeko aukera politta zela iduittu zian ta Igorreri konpañia iñez, ni re putzua zeharkatzera animatu nitzan.

- **Futbolariak, inauteriak, hondartza amaiezinak.... Hori al da zuek ezagutu duzuen Brasil?**

IGOR TA NEKANE: Futbolak eta inauterik Brasilgo kulturaren inportantzia haundia dute, urte guziaz hortaz hitz egiten pasatzen dute! Aukera izandu dunatan, hondartza ezberdinatarara re inguratu izandu ga ta eia sateko zoragarrik dia. Biño Sao Pauloko euneroko bizia ezta hortan oinarritzen. Sao Paulo Brasilgo motore ekonomikoa da ta hiria oso masifikatua do ta kaosa ta ataskok dia eunoroko ogia. Hala re asteburutan hiria asko lasaitzen zen (jendea asteburu pasa kanpora



Sao Paulo.



Iguazu.



Rio de Janeiro.

joten zelako) ta entretenimentu asko bilatzen ginitun: ekintza kultural pilla bat, merkatuk, musika taldek edozin parketan jotzen...

• **Ze desberdintasun dago hemen lanegun batetik hango lanegun batera?**

IGOR: Laneguna, han ta hemen, laneguna da! jajaja! Eia da bertako langilen izakera oso desberdina dela ta laneko asuntok kriston patxadakin hartzen ttuztela. Eztia gu bezala estresatuta erotzen!

• **Zer ekarriko zenuke Sao Paulotik Goizuetara? Eta Goizuetatik Sao Paulora?**

NEKANE TA IGOR: Sao Paulotik Goizutara hango klima! Hango neua hemengu udaberriko giro oneko eun

bat bezalakoa da. Hango frutak e karriko ginituzke, ikiarri onak dia, gozo gozok!

Goizutatik Sao Paulora berriz launak eta familia hasteko, ta gero iberiko batzuk ta txakolina.

• **Izan al duzue beste tokiren bat bisitatzeko aukerarik?**

IGOR TA NEKANE: Bai, zubi batzuk harrapatu ttu ta jai eun horiek aprobetxatuz Iguazuko kataratak, Rio de Janeiro ta hortik Sao Paulo arteko kosta guzia izautu du.

Kostako ibilbide hori oso politta da, sekula ikusi ttun hondartzik polittanak ikusi ttu, hoietako asko salbajek. Rio de Janeiro leku natural zoragarri baten kokatua do ta goitik ikusita ikaragarri politta da, biño hiria bera... eitan dena biño gehio saltzen diute, ze nahiko zahartua ta

utzia zola iduittu ziun. Iguazu, sekula ikusi dun paraje naturalik polittana da, merezi dun leku bat.

• **Faltan bota al duzue Goizuetako karretera?**

IGOR: Hango ataskotan pasatu ttuan orduk pasatu ta gero gure karretera urrea da! Jajaja! Kasu askotan han 5 km itteko biño denbo gutxio pasatzen dut Goizutatik nere lantokira!

NEKANE: Ni re ados no Igorrekin, hiri hortan behar biño jende ta kotxe gehio daude!

• **Nolakoak dira brasildarrak?**

IGOR: Berok, jajaja! Hitz gutxiko jendea da orokorren, asko prometitu ta gutxi kunplittu. Hala re jende arrunt jatorra ta legala izautzeko aukera izandu du.

- **Ezagutzen al dute brasildarrek Euskal Herria? nola ikusten gaituzte?**

IGOR TA NEKANE: Oso gutxik izautzen dute biño izautzen dutenak hemengo egoera politikon berri ongi dakite. Ah, ta surf mundua gustatzen ziten batzuekin e topo in giñun ta haiek ere ongi izautzen zittuzten batez ere Mundaka ta Zarautz.

Euskaldunataz duten ikuspuntua oso ona da. Hasieran nahiko hotzak men ga biño behin ezaututa dena matteko prest gaudela saten ziuten.

- **Munduko futbol txapelketa Brasilen jokatu da, olinpiadak ere bai... Prest al dago Brasil halako ekitaldietarako?**

IGOR TA NEKANE: Gure ustez ez. Batez ere bertako hiritan sortzen dian ataskongatik eta duten tansporte publikongatik. Horreri soluzio bat matteko komentatzen ai dia jenderi ekitaldi haundi hoiek dian eunatan jai mango ote diten empresak itxiz, hiria pixkot baretzeko.

Brasildarrak ez daude kontentu azkenaldin antolatutako ekintzakin. Protesta ta mobilizazio pilla bat eongo dia. Bertako jende humillak ezto onartzen daukaten hezkuntza ta sanidade sistemakin horrenbeste diru ekintza hoitan gastatzea, beste behar inportanteok eukita.

- **Brasilgo hoberena? Eta txarrrena?**

IGOR TA NEKANE: Hobena temperatura, fruta tropikala, gau giroa, hondartzak ta jenden alaitasuna. Txarrana herrialde oso haundia dela ta bertan munitzea denbo asko kostatzen dela.

- **Igor, buelta noizko?**

Uztailla bukaeran, fiestatan frexko-frexko eotteko! Hasieran 6 hilabeteko jon nitzan ta azkenen 13 hilabete ingo ttut bertan! nahiko bada!



Iguazu.



Rio de Janeiro.



Sao Paulo.

Azaro kulturala 2013

Ohi den bezala joan den urteko azaro kulturala ekitaldiz betea izan zen. Hurrengo argazkietan hauetako batzuk nola joan ziren ikusteko aukera izango duzue.

Azaroak 8

Azaroaren 8rako egin behar zen Wukro-Etiopia hitzaldia, azken momentuan bertan behera gelditu zen, hizlariak etortzeko aukerarik ez zutelako. Ia aurtengoan hau aurrera eramateko denbora eta aukera dugun.

Azaroak 9

Beste aldetik ama eta aita guztientzat Meitamaitie eramaile eta pixoihalen tailerra izan zen.

Azaroak 9

Azaroaren 9a ekintzaz betea izan genuen. Goizean, Umore Ona elkartearen Arantxa Eskudero erakutsi zuen arrain-zopa nola egiten den. Argazkietan ikusten den bezala emakume mordo bat elkartu zen bertan. Gizonezkoak berriz ere hauek arrain-zopa goxoa noiz egingo zain egongo dira. Edo agian beraiek jakingo dute nola egiten den.



Azaroak 9

Egun berean arratsaldean jostailuen erakusketa eta hitzaldia izan zen eskolako jangelan.

**Azaroak 15**

Azaroaren 15ean Mikel Markez eta Eñaut Elorrieta izan genituen Gaztetxean. Beraien "Baga, Biga, Higa" lana aurkeztu ziguten eta esan beharra dago nahiz abeslariak nahiz azaldu zen jende pila oso gustura gelditu zirela hitzaldi musikatuarekin.

**Azaroak 16**

Goizean Bilboko eta Goizuetako Umore Ona abesbatzen emanaldia izan zen Elizan. Horiek ondoren elkartean otordua izan zuten. Gainera egun guztia ekitaldi ezberdinez betea egon zen, pilota partidak, dantzariak, futbito partida...





Azaroak 23

Azaroaren 23an "Euskaraz Bizi Nahi Dut" Herri lasterketa.





erreportajea



Azaroak 23

Egun horretan bertan Nagore film-dokumentala ikusteko aukera izan zen udaletxeko ganbaran.



Azaroak 24

Azaroaren 24an mendi buelta izan zen, herriko kisu-labeak ezagutzeko. Hau Umore Onak antolatu zuen, urtean zehar inguruak ezagutzeko egin diren beste hainbat mendi buelta bezala.



Azaroak 30

Hilabeteari bukaera ona emateko azaroaren 30ean FERIA izan genuen. Nahiz eta eguraldi kaxkarra izan egun horretan, betiko moduan jende asko elkartu zen postu ezberdinak ikustera eskolako frontoian eta baita azien-dak bisitatzera ere Irisarriko frontoian. Bazkari arrakastatsuarekin segida eman zen eta jendeak ongi pasatzeko aukera ederra izan zuen berriz ere.



1972

Rakurleak ederki oroituko diren bezala, iazko Xapoko Atzera Begira izeneko atala Lubineko Semea den Antton Berroetak *Diario de Navarra* argitaratutako gure herriko zenbait kronikarekin hornitu genuen.

Aurtengoa ere horrelaxe egingo dugu, eta 1972ko martxora joko dugu has-teko. Berri on batekin irekitzen zuen kronika Berroetak: urte batzuetan geldi egon ondoren, Bilboko Nordia Asincok erosi zuen, enkante bidez, geroztik izen horrekin ezagutzen dugun Behekolandako pabiloia.

“Zuhaitz Eguna” ospatzen zen orduan ere, eta horrela, ehunka pinu intsigni landatu omen zituzten eskolako neska-mutikoek maisu eta apezen laguntzaz. Martxoaren 6an, bestalde, Goizuetako eta Aranoko mediku eta erizain postuen bakantearen berri ematen zuen Nafarroako Aldizkari Ofizialak.


Kronikako *Udaleko Oihartzunak (Ecos del Ayuntamiento)* atalean, gogor erasotzen zuen Anttonek alkatea. Batzarretara zinegotzi batzuk ez ziren joaten eta horren kontrako neurririk ez hartzea leporatzen zion behin eta berri.

Bilkura horretan aipatu zenez, Hernaniko Orbegozok Goizuetan fabrika paratzeko aukera irekita zegoen. Bi faktore zeuden gure alde: Udalak ez zion zergarik kobratuko; eta gure ura —Mandogiko erreka— esate baterako —kalitate onekoa zen.

Gai arinxeagoak ere argitaratzen ziren DNko kroniketan. Adibidez, 19 urteko Jose Mari Zabaletak Lasaren fabrian goizeko 6ak arte lan egin eta arrantzara joan zen. Baita 0,59 m eta 2,350 kg-ko amorraina harrapatu ere. Bezperan 0,850 kg-ko beste bat arrantzatua zuen Goikoetxeko gazteak. Donostiako “gourmets” ezagun batzuek jan omen zituzten bi amorrainak Lujanbion etxeko Fanik labean erre ondoren.

Elkartasuna Zentroko presidente berria Jose Roman Yarza izendatu zutela adieraziz bukatzen zen kronika.

Goizuetako hurrengo berriak apirilaren 15ean publikatu zituen Cordovillako egunkariak. Herriko eskolak argitaratutako *Adiskide* aldizkariko gaiak



Jose Mari Zabaleta.

aipatzen zituen Berroetak. Ostiral Santu eguneko prozesioa ere emozioz gorai-patzen zuen, bertako une garrantzitsuena aingeruek lagundutako San Miguelen pausoak zirela esanez. San Miguelen laguntzaile horiek, aingeruak alegia, herriko mutiko bihurrienak izaten zirela zioen Anttonek umore handiz.

Ia-ia beti bezala, Udaleko berriak agertzen ziren kronika horretan, korporazioaren ondorengo erabaki hauek esate baterako: Udalak ordurako eraiki berria zuen lokalean ekipoak muntatzen hasteko baimena ematea Compañia Telefonicari; Jesus Razquin iruindarrari ematea Goizuetako eta Aranoko mediku postua; Txumekan transformagailu berria paratzea; Fermin Antonio Apeztxea kalea zolaberritzea; Irisarriko frontoia eraberritzea saskibaloirako, eskubaloirako eta abar prestatuz.

Eta horrela, ekainaren 22ra goaz. Era ezberdineko berri asko ematen zituen Berroetak egun horretan DNan. Hasteko, pozik zegoen berriemailea hainbat auzotan pistak egiten ari zirelako. Aita-semegikoa egin berria zen orduan, eta Mandogikoa bukatzeaz zegoen. Dena

den, oraingoan ere *Udaleko oihartzunak* izeneko atalak betetzen zuen orriaren zatirik handiena. Lehen aipatu dugu Anttonen haserrea plenoetara zinegotzirik agertzen ez zelako. Ba, maiatzaren 19rako eta ekainaren 9rako deitutako batzarretara ez zen inor ere joan bere orduan. Kazetaria eta Udal idazkaria bakar bakarrik. Lehenbizikoan, alkatea ordubete beranduago joan zen, eta bigarren, atzerapen berdinarekin, 2 zinegotzi. Urtain eta Blinen arteko konbatea telebistaz ikusten gelditu izanen omen ziren gainerakoak. Berri ere kritika gogorak idazten zituen Anttonek egoera honen aurrean. Hiru egun beranduago egin zen batzarra azkenean.

Osasuna Promesasen jokatzeko Echeverriak eta Californiatik bisitan etorri berriak ziren Sutegizaharreko Manuel eta Nicanor anaiak aipatuz bukatzen ziren egun horretako berriak.

Abuztuaren 3ra joz esan dezagun herria medikurik gabe zegoela, Razquin kontratatu berriak bere lanpostuari uko egin baitzion. Gainera, gaztetxoak haserre omen zeuden Udalarekin, Irisarriko frontoia, lehen erabaki bezala, atondu ez zelako oraindik.

Igaro berriak ziren Aranoko jaiei ere begirada botatzen zien Berroetak. Meza ederra izan omen zen, baina ohiko pilota partida berandu hasi zen, teknikoki txarra... eta gainera Goizuetak galdu egin zuen.

Gure Udalean betikoa. Uztailaren 21eko batzarra 24an egin zen lehengo deialdian zinegotziak agertu ez zirelako. Amabirjinei buruzko hainbat gai onartu ziren bertan; zezenetarako “Rubito de Viana” eta plazako berbenetarako “Los Diamantes” kontratatzea esate baterako. Lau egunez jotzearen truke 40.000 pezeta kobratuko zituen musika talde horrek.

Pilota partidak ere antolatuta zeuden. Amabirjin egunean Vergarak eta Mtnez de Irujok, Aguirre eta Gorostizaren kontra jokatuko zuten; bihar-munean, Choperena eta Bengoechea I, Bengoechea III eta Elizalderen kontra; eta 17an, Arcelus eta Vizcay, Ansola eta Salvidearen kontra.

Goizueta iruditan

GOIZUETA EZAGUTZEN ekimenarekin Umore Ona Elkartek bederatzi mendi buelta antolatu ditu.

Horietako zortzi herri inguruko bidexkak, txokoak, bordak... ezagutzeko izan dira, baita gure arbasoek utzitako altxorrek ikusi eta ezagutzeko ere.

Bestea ondoen dugun eta gurekin harreman berezia duen Arano herrira.

Mendi buelta horietan adin guztietako jendea ibili gara, umeak, gazteak eta ez hain gazteak.

Argazkietan ikusten den bezela toki zoragarriak ikusi ditugu. Nahiz eta hain hurbil izan, askok ez genituen ezagutzen.

Arbasoek utzitako altxorrek: kixulabeak, megali-toak, arkaitz eta harri bereziak, historia duten lur eremuak, eta abar.

Ibilbideak prestatzen Igor Elizegi, Ibon Elizegi eta Unai Miranda ibili dira buru belarri, eta historia pixka bat erakutsi diguna Jose Jabier Etxeberria.

Argazkiak: Igor Elizegi.



IBILBIDEAK:

Ibilbide guztiak herriko plazatik hasi eta herrian bukatu dira eta denak 9 km eta 15 km bitartekoak izan dira.



1

Plaza – Musurdinborda – Nekuko hariztia – Kuxingo borda – Txamoraberri – Herria.



3

Plaza – Itxortxa – Bistalekuko borda – Ikatzola – San Pedroko borda – Olatxo – Herria.



5

Plaza – Fermiñenea – Sarran – Artantxu – Irolako borda – Biuretako borda – Aitaborroko hariztia – Herria.




2

Ibilbide megalitikoak:
Martitxene – Altzanburu – Añone – Errekaleku – Arnabarreta – Kaleko borda – Herria.



4

Plaza – Labeko borda – Petan zelaia – Etxolla – Txakurtxoko borda – Kaleko borda – Herria.



6

Plaza – Domiñazpi – Tartazuko harria – Guriko harria – Bordaberriko borda – Larritz – Bordaberri – Herria.



7

Plaza – Martitxene – Alkaso – Aranola – Ibarrolako borda – Tartazuko harria – Santa Kruz – Herria.



8

Kixulabeen ibilbidea:
Plaza – Porrosta – Errekalde – Izotzola – San Anton – Herria.



9

Goizueta – Arano:
Plaza – Martitxene – Altzanburu – Burningo borda – Arano.





Luis Miguel Apezetxea

Luis Miguel Apezetxea Lizaso Goizuetako botikako arduraduna dugu. Doneztebearra da, ezkondua, bi seme-alaba ditu, eta 14 urte darama dagoeneko Goizuetan. Botikako lanak, jakina, goizuetar askorekin harremana izateko bidea eman dio. Harreman horietan erabiltzen den hizkuntzaz galdetzeko jo dugu berarengana, hain zuzen ere.

• **Hasteko, zein da zuk euskararekin izan duzun harremana? Doneztebeko zure inguruan euskara zertan zen?**

Ez nuen txikitik euskara ikasteko aukerarik izan, bi arrazoirengatik: alde batetik, nire familiaren hizkuntza gaztelania zen, garai hartan euskara oso gaizki ikusia zegoelako. Eta bestetik, eskolan ez genuen euskarako ikasgairik eta dena gaztelaniaz ikasten genuen.

• **Eta gaur egun zertan da harreman hori? Urteen joan-etorrian aldatu al da?**

Gaur egun bai, euskararekin badaukat harremana. Izan ere, nire bi seme-alabek dena euskaraz ikasten dute, D ereduari, eta nire emaztea ere euskara ikasten ari da.

Goizuetan egin ditudan 14 urte hauetan dezente ikasi dut, eta orain euskarazko elkarrizketa bat jarraitu dezaket. Garai batean ezin nuen. Oraindik ez naiz ausartzen, ordea, euskaraz hitz egitera.

• **Goizuetara etorri zinen duela 14 urte, esan bezala. Espero zenuen herria aurkitu zenuen? Ustekabekorik?**

Goizuetara iritsi nintzenean goizuetarren izateko moduak arreta eman zidan, oso atsegina egin zitzaidan hori: hemengoan adeitasuna, sinpatia, pazientzia, ulertzeko gaitasuna... Oro har, Goizuetako jendearen oso irudi ona hartu nuen.

• **Eta hizkuntzari dagokionez, etorri zintenean, zein izan zen zure hausnarketa, zer pentsatu zenuen?**

Goizuetara etorri nintzenean banekien bertan euskara oso garrantzitsua dela.

• **Hitz egin dezagun orain zure eguneroko lanaz, bezeroekin duzun harremanaz, eta euskarari buruz. Nola egiten duzu bezeroekin?**

Bezeroek normalean euskaraz egiten didate. Nik esaten didatena ulertzen dut eta gero, normalean, nik gaztelaniaz egiten diet. Beti saiatzen naiz zer edo zer euskaraz esaten, baina oso zaila egiten zait.

• **Euskara ongi ulertzen duzu. Bezeroek zurekin euskaraz egin dezakete, beraz? Gehiago egitea gustatuko al litzaizuke?**

Bai, gustatuko litzaidake ikasi eta bezeroekin euskaraz hitz egitea, baina gaur egun, lana eta familia dela eta, oso zaila da ez dudalako ia batere astirik ikasi ahal izateko.

• **Zer esanen zenieke zure bezeroei, gai honi buruz? Zein da zure hausnarketa edo proposamena?**

Bezeroek oro har ez dute desadostasunik adierazten, nahiz eta badagoen beti euskaraz hitz egiteko aukera hori aipatzen duen jendea. Jendea oso adeitsua da. Nire aldetik, gustatuko litzaidake nirekin euskaraz egiten jarraitzea, eta nik, noski, gero eta euskara gehiago ikasteko ahalegina egin.

Eskerrik asko denei.

Euskaraz irakurtzea

Garai batean euskara ia-ia ahozko hizkuntza hutsa zen Euskal Herrian, baita Goizuetan ere, jakina. Gutxi ziren idazten zekitenak, are gutxiago euskaraz idazten zutenak. Gauzak asko aldatu dira, ordea, eta gaur egun euskaraz idatzi eta irakurtzea arrunt normala da, eta edozertaz idatz daiteke eta idazten da euskaraz.

Aspaldi esana dago, gainera: hizkuntza batek aurrera egin nahi badu ahoz erabili beharko da, zalantzarik gabe, baina baita idatziz ere, gure bizitzako hainbat gauza idatziz egiten baititugu.

Baina ba ote dugu goizuetarrok euskaraz irakurtzeko ohiturarik? Erraz egiten al dugu? Behar adina saiatzten al gara? Arrazoiak asko izan litezke, baina euskaraz behar adina irakurtzen ez dugula esan liteke, okertzeko beldur handirik gabe. Adin batetik gorakoak erdaraz eskolatuak dira denak, hori egia da, baina herriko gazte guztiak eta hainbat heldu ere dagoeneko euskaraz ikasitakoak dira. Ttipi-ttapa, Xapo eta horrelakoen bitartez goizuetar asko, helduak eta adinekoak barne, euskarazko testuak irakurtzen ohitu da neurri batean. Alegia, euskaldunak gara eta euskaraz ere irakur dezakegu.

Ohitura faltagatik ahalegintxo bat eskatzen digula horrek? Baliteke, baina gustuko tokian aldaparik ez da izaten, eta nahikoa da gustuko irakurgaiak aurkitzea erraz irakurtzeko ohitura eta gaitasuna lortzeko. Hasiz gero, uste baino lehenago lortzen da erraztasun hori. Izan ere, behar diren

bi gauza oinarrizkoenak baditugu: euskaldunak gara, eta irakurtzen badakigu.

Faltako litzatekeen hirugarrena lehen ere aipatu dugu: gure gustuko irakurgaiak. Eta hor, zalantzarik gabe, badugu non aukeratu. Dagoeneko badaude milaka irakurgai polit, atsegin eta interesgarri, paperean edo Interneten, denon eskura, eta edozein gairi buruzkoak: kirola, literatura, historia, kultura, gastronomia, filosofia, politika, zientzia... nahi duguna.

Eta irakurtzeaz ari garela, irakurtzeko ohitura egunero lantzeko modu bikaina aipatu nahi dugu. BERRIA egunkaria, euskaldunon egunkaria alegia. Euskara zuzen eta egokian ematen digu eguneroko informazioa, eta euskararentzat eta euskaldunontzat, oro har, ezinbesteko tresna bihurtu da. Horren berri badute UEMAK eta gure Udalek, eta horregatik lagundu nahi izan dute BERRIA zabaltzeko eta hedatzeko egiten ari den ahalegina. Egunkaria berritu eginen da aurtengo udaberrian, eta UEMAKo herrietako herritarrei eskaintza berezi bat egin nahi izan diete produktua ezagutzeko. Izanen duzue egunotan horren berri zuen etxeetan. Testu honekin batera ikusiko duzuen orria iritsiko zaizue, eta telefonoz deituta edo orria postaz bidalita BERRIA 15 egunez doan jaso ahalko duzue. Hemendik, besterik gabe, gogorarazi nahiko genizuke BERRIA bera euskararentzat egitasmo garrantzitsua eta funtsezkoa dela, eta hura irakurriz geure buruari eta euskarari ere mesede eginen dio-gula.



erreportajea



Zigilurik gabe

Jasotako lekuan ordainduko da

berria

121 posta kutxa
20140 ANDOAIN
Gipuzkoa

Bai, BERRIA egunkaria
15 egunez DOAN
 jaso nahi dut

Erabili bide hauek eskaera egiteko:
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info
 Posta arrunta

izen-abizenak _____

Telefonoa _____

Posta elektronikoa _____

Helbidea _____

Posta Kodea _____ Herria _____

Datu Pertsonalik Babesteko Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetik, jakinarazi nahi ditugu zure datu pertsonalik BERRIA Taldearen (Euskarazko Komunikazio Taldea SA) fitxategietan sartuko direla baldin ez zerbizuzki erabakit. Inberridunak baimen beharria ematen du bere datuen tratamendua Taldea osatzen duen enpresa gurtiel urteko, taldearen eskaintzen berrit emateko (bai paperez bai balabide elektronikoz erabilita) eta bere kontakurako datuak argitaratzeko zuzketaren sariduna izanez gero. Eskaintzen berrit jaso nahi ez badazu marka jarri: Zure esku dago sarbide, zuzenketa, ezabatzen eta aurkartzeko eskubideak erabiltzea. Hala egon nahi izanez gero, izartu helbide honetara: Euskarazko Komunikazio Taldea, Martin Uzkaitz Kultur Parkea, 20140 Andoain.



Goizuetarren izenak

Herri euskalduna da Goizueta, eta normalean izen euskaldunak jartzen dizkiete guraso goizuetarrek beren seme-alabei. Normala da hori gaur egun eta horixe da joera nagusia.

Baina hori ez da beti hala izan, noski. Gaur egun Oier edo Izaro gisako izenak jartzea da ohikoena gurean, baina beste garai batzuetan askozaz ere normalagoa zen Jose Manuel, Maria Gloria edo antzekoak jartzea. Jatorri erdalduneko abizenak jartzen ziren orduan eta, bidenabar esanda, gehienetan konposatuak, bi osagai zituztenak alegia.

Noiz aldatu zen hori? Tira, gauza horiek ez dira agian egun batetik bestera gertatzen, baina erraz ikusten da duela 40-45 urte inguru hasi zirela gauzak aldatzen. Kontu hau pixka bat ilustratzeko goizuetarrei garai ezberdinetan jarri zaizkien izenen zerrendak ekarri ditugu hona, horrela askoz ere argiago ikusiko dugulakoan.

Udalaren erregistroetatik atera ditugu, hain zuzen ere, XX. mendeko zenbait garaitan jaiotako izenak. Urte tarte hauetan jaiotakoak, hain zuzen ere: 1919-1920, 1950-1951, 1970-1971, eta 1980-1981. Lau zerrenda horiek ondoan dituzue ikusteko moduan.

Horiekin batera, azken lau urteotan jaiotako izenen zerrenda ere ekarri dugu, gauzak nola aldatu diren erraz ikus dezagun. Azken horrekin urte-tarte handiagoa hartu dugu, lehen baino dezentez ume gutxiago jaiotzen baita azken aldi honetan Goizuetan.

Ikusiko duzue, 1970. urterako izenak jartzeko garaian joera aldatzen hasita zegoen. 1970-1971. urteetan jaiotako haur gehienei jatorri erdal-

Policarpio

HEGOA

Josune

Celestino

Hipolita

Jose Manuel

Maialen

GARBIÑE

Ametz

Maria Pilar

Tomas

Garikoitz

duneko izenak jarri zitzaizkien, baina baziren ordurako euskaldun batzuk ere: 27tik 6 hain zuzen ere, % 22,2 alegia. 1980.-1981. urteetan, berriz, zegoeneko izen gehienak euskaldunak ziren, 20tik 14, % 70. Joera hori, jakina, indartuz joan da, eta gaur egun jartzen diren izenen ia % 100 euskalduna da.

Esan behar da, jakina, aurreko garaietan euskaldunak ez ziren izenak jartzeko zenbait arrazoi izan zutelak: aspalditik ongi errotutako ohitura, euskaldunak izan arren izen erdalduna jartzeko ohitura alegia,

hizkuntzen prestigioarekin zerikusi handia izanzen zuena; baina beste alde batetik, gogoratu behar da frankismo garaian izen euskaldunak jartzeko debeku argia egon zela, eta nahi izanda ere, legez ezin zela halakorik jarri. Modu ofizialean ez behintzat.

Kontuak kontu eta esan bezala, 1980. hamarkadarako gauzak asko aldatzen hasita zeuden, eta gaur egun izen euskaldunak jartzea guztiz normala eta arrunta da. Herriko bizitzan euskarak bere tokia bilatu eta hartu du, eta badirudi izenak jartzeko ohituraren ere hala gertatu dela.

1919 eta 1920

Valentina Emiliana
 Jose Miguel
 Paula
 Jesus Evaristo
 Silvina
 Fermina Ignacia
 Gregoria
 Antonio
 Jose Julian
 Petra
 Mariano Pascual
 Policarpo
 Juana Petra
 Jose Manuel
 Pascuala Maria del Pilar
 Juana Francisca
 Esteban
 Hipolito Timoteo
 Hipolita
 Maria Lucia
 Teofila
 Evarista Agustina Petra
 Josefa Ramona
 Maria Andresa Sinforosa
 Maria Concepcion
 Tomas
 Francisco
 Maria Hilaria
 Alejandro
 Juan
 Lorenzo Gregorio
 Florentina
 Micaela
 Maria Josefa Victoria
 Emilia
 Joaquin
 Micaela
 Maria Saturnina
 Serafina

1950 eta 1951

Celestino
 Miguel Maria
 Antonio Maria
 Pedro Maria
 Maria de las Nieves
 Maria Luisa
 Maria Purificacion
 Francisco Javier
 Jesus Angel
 Maria Gloria
 Jose Manuel
 Maria Jesus
 Maria Milagros
 Jose Ramon
 Lazaro
 Luis Maria
 Jose Francisco
 Maria Rosario
 Carlos

1970 eta 1971

Yon
 Juan Antonio
 Antonio
 Salvador
 Miren Garbiñe
 Maria Begoña
 Ceferino
 Maria Pilar
 Santiago
 Francisco Javier
 Miguel Antonio
 Maria Milagros
 Agustin
 Antonio Maria
 Miguel
 Manuel
 Jose Antonio
 Miren Jasone
 Maria Aranzazu
 Maria Idoya
 Juan
 Maria Jesus
 Iñigo
 Aitor
 Luis Ignacio
 Maria Carmen
 Juan Jose

1980 eta 1981

Garbiñe
 Lazaro
 Olaia
 Onintza
 Maitakunde
 Asier
 Igor
 Josune
 Maria Jose
 Pablo
 Miguel Angel
 Garikoitz
 Francisco Javier
 Eneritz
 Aitziber
 Gorka
 Josu
 Oihana
 Amaia
 Fernando

2010 eta 2013

Axel
 Eñaut
 Hegoa
 Mattin
 Luka
 Aritz
 Alize
 Irai
 Jare
 Yera
 Ireber
 Katixa
 Beñat
 Haritz
 Izaro
 Amets
 Maren
 Juan Maria
 Maialen
 Araitz
 Eila
 Oier
 Luken
 Urtzi



Nuria Collomer

Nuria Collomer Bartzelonakoa da, eta duela lau urte eta erdi Euskal Herrira etorri zen bizitzera. Lau urtez aritu da euskara ikasten Irun-go udal eskalategian, eta duela hiru urte Lazkaoko barnetegian ere izan zen. Gurera etorri orduko, beraz, ekin zion euskara ikasteko lanari. 1. eta 2. HABEko maila gaindituak ditu dagoeneko, eta orain 3.a prestatzen ari da (EGAre parekoa). Ibilbide polita egin du, denbora gutxian.

Goizueta aldera duela hiru bat urte iritsi zen, abesbatzako zuzendaria da gaur egun, eta horrek bultzatu gaitu galderatxo batzuk egitera, XAPO al-dizkariko euskararen inguruko atal honetan.

• **Kataluniatik etorri eta berehala hasi zinen euskara ikasten. Zerk bultzatu zintuen horretara?**

Musika irakaslea naizenez eta nire plaza finkoa Katalunian dagoenez behar nuen euskara, batez ere, nire lanpostua hona ekartzeko. Baina harez geroztik euri asko egin du, eta orain nire inguruko jendearekin erlazionatzeko erabiltzen dut.

• **Eta noiz eta nola hasi zinen ikasitako hori erabiltzen? Nondik hasi zinen?**

Hasieran, eskalategian bakarrik hitz egiten nuen euskaraz, baina poliki-poliki etxean ere hasi nintzen mintza-praktika egiten. Beran bizi nintzen gainera, beraz, oso aukera ona neukan lantzeko. Pixka bat beranduago, Irunen dauzkadan lagunekin ere ausartu nintzen euskaraz hitz egiten, baina ohiturak gaztelerara eramaten nau .

• **Irunen bizi zara, baina Goizuetara ere joan-etorri dezente egiten duzu. Bi inguruak ongi ezagutzen dituzu. Nolakoa da, euskarari dago-kionez, bien arteko aldea?**

Egia esan, Irunen ez da euskara asko erabiltzen, hainbat

dendatan bai, eta baita alde zaharraren inguruan ere, baina oso gutxitan. Goizuetan, berriz, ez da txintik entzuten gazteleraz!!!!

• **Goizuetara etortzen hasi zinenen herri erabat euskalduna dela ohar-tuko zinen. Garai horretan euskara ikasten hasia zinen. Zer pentsarazi zizun euskararen gaiak? Nola planteatu zenuen?**

Goizuetara etortzen hasi nintzenen ez nekien euskara batere, beno, oso-oso gutxi; eta pentsatu nuen inoiz ez nuela Goizuetarrek bezala hitz egingo. Eta egia da!!! Momentuz, ez dut lortu, baina behintzat ulertzen dut haien hizkera, ez dena, baina orokorrean harrapatzen dut esan nahi dutena.

Argi neukan ikasi behar nuela hemen-go hizkuntza harreman berriak egiteko eta bertakotzeko. Eta orain nik uste dut esan dezakedala nire helburuak gainditzten ari naizela; hala ere, oraindik bide luzea falta zait.

• **Goizuetako abesbatzako kideak euskaldunak dira, euskaraz aritzen dira beren artean. Nola ikusten duzu zeure burua giro euskaldun horretan?**

Nola ikusten dudan neure burua? Ba nahikoa “atzeratua”, oraindik kostatzen zait lotsa askatzea eta ez naiz ausartzen hitz egitera, baina ulertu, ia dena. Hori bai, poliki hitz egin behar duzue, zuen euskalkia ez dut hain ondo kontrolatzen eta.

• **Eta abesbatzan egiten duzun lan horretan, abesbatzako kideekin-eta, noiz, nola eta zenbat erabiltzen duzu euskara?**

Ba, lehen esan dudan bezala, ez naiz ausartzen hemen Goizuetan, lotsa dudalako, eta ohitura txarra hartu dudalako. Beraz, ez dut ia inoiz erabiltzen koruan... Saiatu beharko nintzateke pixka bat ea behingoz galtzen dudan lotsa hori!

• **Goizuetan euskara gehiago ez egiteko arrazoi gisa lotsa aipatu duzu. Nola iruditzen zaizu gainditu dezakezula hori? Zertan lagundu dezakete zure ingurukoek, zein urrats egin dezakezue?**

Ez dut oso argi zer egin dezakedan lotsa hori kentzeko, baina pentsatzen ari naiz berriz Maizpidera joatea (Lazkaoko barnetegia). Agian horrela gaindituko dut pixka bat lotsa hori eta Goizuetan ere hasiko naiz euskara erabiltzen.

Berez, Goizuetarrek beti eskaini egin didate haien laguntza, ia beti hasten dira euskaraz hitz egiten, baina gero... gaztelerara jotzen dut. Beraz, laguntza badut!!! Egin beharko nukeena ausartzea da, asko pentsatu gabe. Nik uste dut, horrela jokatuz, poliki-poliki lotsa-eta, esan dudan ohitura txarra, galduko nukeela.

• **Zeure burua ikusten al duzu goizuetarrekin normal-normal eta beti euskaraz aritzen, bakoitzak bere aldetik jarriz gero?**

Bai, noski!!!! Goizuetarrak beti prest daude niri laguntzeko, beraz bai, egunen batean, eta ez oso urrun, hasiko gara euskaraz hitz egiten! Gogorik ez da falta eta!



ezetz asmatu



EZETZ ASMATU

Urteak ez direla alferrik pasatzen! Lau argazki dituzue ondoan, lauak ere duela urte batzuk egindakoak. Urteek eta denborak gauza asko aldatzen dituzte, gorputzak gizendu, buruak soildu, zimurrak agerrarazi... Itxuraren gordeleku horien guztien azpian, hala ere, pertsona berak jarraitzen du eta saiaturaz gero beti aurkituko dugu arrasto garbiren bat emanen digun ezaugarriren bat edo detailereren bat. Batzuen kasuan, gainera, ez da gauza handirik behar, urteen joan etorriak ez dielako, egia esateko, itxura asko aldatu.

Argazkietako batzuk erraz ezagutuko dituzue, beste batzuen kasuan akaso gehixeago kostako zaizue. Ez galdetu ondokoari, nolahi ere, aurrena zuek asmatzen saiatu gabe. Animo.



2010eko azaroaren 27a zen, larunbata. Goizeko 8ak inguruan jaiki nintzenerako kanpoan sumatzen zen zalapartak argi adierazten zuen larunbat arrunt bat ez zela.

Feria ospatzen zen herrian. Urte osoko festa handienetako bat. Nire umeak ere normalean baino goizago esnatu ziren berehala kanpora zihoazela esanez. Gosaldu bezain pronto egunari zego-kion erropajea jantzi, eta bederatzietarako plazan ziren. Ondoren neuk ere prestatzeari ekin nion. Dutzatu eta baserritarren blusa eta gona jantzi nituen. Orduan oroitu nintzen nire gizonaz. Harritzekoa zen oraindik ohean egotea. Gelara joan nintzen eta esna zegoen, baina egia esan, ez zeukan festara ateratzeko moduko itxurarik. Juxtu antzeko tenplean zebilen azken egunetan, eta zirudienez, gripearen erasoak orduantxe jo zion gailurra. Hala ere, ez zuen ni etxean gelditzerik nahi. Amaginarrebari deitu nion, eta senarra eta umeen eguna antolatutakoan nire prestatetarekin jarraitu nuen.

Dotore orraztu, makilatu... eta ez dakit zerk bultzatu ninduen horretara, baina soinean neuzkan kuleroak erantzi eta tiraderako tangarik txikiena jantzi nuen. Berehala plazara bideratu nituen nire pausoak. Ordurako, jada eguerdi aldea zen, ikusgarria zegoen herria. Salmenta postuetan barrrena nenbilela koadrilako bi lagunekin elkartu nintzen, bat ezkongabea, eta beste, duela hiruzpalau urte banandua. Horiek ere harrotu antzean zeudela iruditu zitzaidan.

Ikusi beharrekoak ikusitakoan, trago batzuk hartzeko garaia zela erabaki genuen. Behetikodendan sartu ginenerako hiruna Marianito edanda geunden. Gozategiren kanta zahar bat dantzatzu hurbildu ginen mostradorera eta kalamare errazio bat eta beste hiru Martini eskatu genituen. Jendez lepo zegoen taberna. Askok kanpotarrak. Arantxak kalamareak ekartzearakin batera bazterxeago zeuden bi mutil inguratu zitzaizkigun. 30 urteren bueltan ibiliko ziren biak. Gu baino dezente gazteagoak beraz. Bandejatxotik kalamar bana hartzen zuten bitartean Lander eta Andoni bezala aurkeztu ziren, Amezke-



takoak zirela esanez. Biak ziren mutil dotoreak, baina Lander bereziki ederra zen. Metro eta laurogei zentimetrotik gorako garaiera, bizpahiru eguneko bizarrarekin, ilea neurri perfektuan moztua, marka famatuko kirol arropaz jantzia... eta gainera, barremurriz argi eta sujerenteaz begiratu zidan. Ni ere ez nintzen batere moztu, alderantziz baizik. Halako batean, eta aurpegian kalamar puskatxo esaten zidan bitartean, hatz lodia igaro zidan ezpainenetan. Nik, jokoa segituz, mingainarekin bere hatza busti nion. Kilikadurak sentitu nituen sabelean.

Amezketarren kontura beste tragoxka bana edandakoan, pilota plazako herri bazkarira gindoazela esan genien. Beraiek ere asmo bera zutela esan ziguten eta elkarrekin joan ginen plazara. Trikitilariak ere orduantxe zihoazen frontoira kalejira bat joaz. Berehala heldu ninduen Landerrek gerritik, eskua blusaren azpitik sartuta, jakina.

Mahaian ere elkarrekin eseri ginen bostak. Edozein aitzakia nahikoa zuen gipuzkoarrak nire gerria, belaunak edo eskuak ukitzeko edo laztantzeko. Ni gero eta gusturago nengoen, eta babernak jaten hasi ginenean pasiboia zen jarrerera, aktiboa bihurtu zen odolkia ekarri zutenerako. Izter gainean paratzen nion eskua noiznahi, eta goraxeago ere

bai eguerdiko Marianitoei sagardo tragoak gehitu ahalean.

"Ixil ixilik dago..." pieza jotzen hasi zen Modesto akordeoilaria. Eskua hartu eta dantzara atera ninduen lehenengo akordearekin. 500 laguneko artean egon arren, bi gorputzak bat egin genituen berehala, eta bere hankarteko fardelak nire sabel azpian sentiarazten zidan zirrara ia-ia jasanezina zen. Kantak eta dantzak segitzen zuen bitartean herri guziaren aurrean kontrola galduko ote nuelako beldurra sartu zitzaidan. Beraz, bukatu bezain pronto buruarekin keinua egin nien nire bi lagunei, eta kanpora alde egin genuen Lander eta Andoniri aiorik ere esan gabe.

Berehala ekin genion hirurok ilunabarreko poteoari. Alai nengoen, baina ezin nuen burutik kendu azken bizpahiru ordutan gertatutakoa. Kanpoan 4º inguruko tenperatura izanen zen, baina nire barreneko termometroa topera zegoen. Tabernaren batean sartzen ginen bakoitzean bi gipuzkoarrak han ote zeuden begiratzen nuen. Alde batetik nahia eta bestetik beldurra. Azkenean, arratseko 12ak inguruan, Mutun sartu bezain pronto ikusi genituen, tabernaren beste muturrean zeuden, telebistaren azpian, zerbeza botilak eskutan... eta lehen baino dotoreagoa, goapoagoa eta sexiagoa zegoen Lander.

Banekien ez nuela horrela egin behar, baina jende artean ia-ia presaka igaro eta berarengana joan nintzen. Taberna gainezka zegoela, argi gutxi samarrarekin eta biok desiratzen geundela aprobetxatuz, gerritik behera sartu zidan eskua ni hurbildu bezain pronto. Ipurdiko xuloraino eramane zuzenean inolako ardurarik gabe. Nola mugitzen zuten hatza han!! Erotzearen nengoen. Nola zekien alu hark huraxe zela nire puntu erotikoa nagusia? "Benga, neska, aurrera!!" pentsatu nuen. Ternua galtzen kremlera jaitsi nion. Lehertzearen zekana zakila. Zer emango ote nuen orduan huraxe ahoan sartzearen truke!! "Segi komonera. Ni banoa segituan" esan zidan belarrira mingaina zulotik sartuz. Eta ni abiatu. Bai abiatu. Badaikit istorio honek grazia, indarra eta erotismoa galtzen duela orain irakurriko duzunarekin, baina honelaxe gertatu zen eta honela kontatuko dizuet:

Ba, edozer gauzetarako prest komonerantz nindoala, besoak altxatuta dantzan zebilen gazte baten gin-tonika burutik behera joan zitzaidan bere jela kozkor eta guzi. Lainoetatik jaitsi ninduen istripuxo horrek. Segundo pare bat geldirik egon ondoren, komonerako bidea utzi eta kanpora atera nintzen. On egin zidan kaleko hotzak. Beste geldialditxo bat, eta pauso bizkorrez etxerako bidea hartu nuen. Ez nuen atzera begiratu nahi badaezpada ere.

Senarra besaulkian zegoen telebistari begira. Ez nion gabonik ere eman. Bere aurrean biluztu nintzen eta berari txandala erantzeko ere denborarik eman gabe, hainbeste ezagutzen nuen zakila inoiz ez bezala xurgatu nuen. Handik aurrerakoa ikaragarria izan zen. Xulo guztiak esploratu zizkidan, baita -gure harreman luzearen barrenean lehenengo aldiz- Landerrek Mutu tabernan xirikatu zidan hura ere.

Plazerrarekin batera, harriduraren keinuak ikusten nituen nire bikotearen aurpegian. Jakin izan balu gizarajoak tresna bezala erabili nuela gau horretan!! Hain estu besarkatzen nuen gorputza eta nire konpartimendu guztiak zeharkatu ondoren aurpegian husturazi nuen zakila hura... Landerrena zen, nire imajinazioan behintzat.

Arrain-zopa



Osagaiak:

- Olio eta gatza
- Baratxuri ale pare bat
- Azenarioa: kilo erdia
- Tomate trituratua: kilo erdia
- Tipula: kilo erdia
- Zopako ogia (beltza)
- Porrua: 3
- Ardo zuria
- Arraina (zapoa, legatza, aingira eta abar...). Arrain izoztuarekin ere egin daiteke
- Ganbak (baita almejek ere, nahi izanez gero)

Nola egin:

Barazkiak zatitu puxka ttikitan eta oliotan potxatu, ondoren ardo zuria nahasi.

Beste kazula batean arraina egosi (arrain freskoa baldin bada 5 bat minutu nahikoa, izoztuak gehixeago behar du). Ura gorde eta arraina berexi hezurretatik.

Barazkiak potxatutakoan, zopako ogia eta arraina egosteko erabilitako ura nahasi eta gatz pixka bat gehitu.

Ganbak zuritu eta gorde. Buru eta azalekin fumeta egin eta barazkiei nahasi.

Eta bukatzeko, irabiagailua edo batidora pasa eta arraina eta ganbak nahasi.

Arantxa Eskuderoaren eskutik



Juan Mari Zugarramurdi-
ren lan batekin beteko
dugu aurtengo Xapoko
bertsoaren txokoa.

Egilearen biografiatxoa egi-
nez esan dezagun, Danbolin-
borda baserrian jaio zela Juan
Mari 1958an, baina oraindik
haurra zela familia Artantxu-
ra joan zen bizitzera. Ez da
bertso asko argitaratutako
egilea, baina bertsolari klasi-
ko asko bezala, esaldi errima-
tuen zalea da, eta ezagunak
dira literatur mota hau era-
biliz Ttipi-ttapan idatzitako
hainbat gutun.

Hemen irakurgai dituzuen
bertso hauek 1991an aurkeztu
zituen Zugarramurdik orduan
herrian urtero antolatzen zen
Bertso Paper Lehiaketara.
Sorta osoa sana, naturala eta
freskoa bada ere, 7. bertsoa
arretaz irakurtzea gomenda-
tzen dizuegu, antologikotzat
jotzeko modukoa baita gure
ustez.

- (1) Gazte gaztetik astoa zinen
Nere laneko laguna
Horregatikan aspalditikan
Nik zu zaitut ezaguna.
Hamaika egur mendietatik
Guk ekarria duguna
Garai batean izaten zinen
Gizena eta leguna
Orain hezurra eta azala
Bazterturik zaituguna
- (2) Sotora jeitxi, albarda jarri,
Nahiz gutxitan jarri zuzen
Hurrena pasta eta nonbattor
Atzekoz aurrera ez bazen.
Amak askotan esaten zidan:
“Janari bila goazen”
Zilipurdika joaten zinen
Zu atzetikan jostatzen.
Oroitutzen naiz garai hartako
Bizimodua nola zen.
- (3) Herri aldetik janari asko,
Menditik egur-belarrak.
Lanean ongi erakusten du
Munduan bizi beharrak.
Nahiz lana egin bota genitun
Guk biek egun ederrak
Orain burua makurtu eta,
Pausoak berriz baldarrak.
Nik zu horrela ikusi eta
Ia eman dit negarrak.
- (4) Kale bazterren lotuta utzi
Eta meza entzutera
Handik atera eta korrika
Ongi zeunden ikustera
Gehiago ere egoten ziren
Hantxen zurekin batera.
Hamaika arrautza eta aztarka
Egiten zenuten atera.
Zu ikusita joaten nintzen
Pastela bonba jatera.
- (5) Etxe ondotik mendi aldera
Nahiko pauso elbarria,
Non ote zaren nik entzuteko,
Lepotikan txintzarria
Nahiz beharrik ez hortxe daukazu
Aspalditikan jarria.
Ezin altxatu duzu oraintxe
Eskuineko belarria.
Ez ote zaren denbora askoko.
Oraintxe nago igerria.
- (6) Jende batzuek esan didate
Buruan jo ta hiltzeko,
Edo bestela maldatik be(he)ra
Errekara amiltzeko.
Nik esan diet pake-pakean
Asto horri utzitzeko,
Ez ote daukan eskubiderik
Horrek ere bizitzeko
Besteren gauzak paken utzita
Berenak ongi ibiltzeko.
- (7) Ez bazerade etxera etortzen
Ni joango nauzu bila
Non ikusiko edo entzungo
Erne ta ixil-ixila.
Eta ikusten baldin bazaitut
Bazterren batean hila
Esango dizut: egin dituzun
Lanengatik esker mila,
Beste asto bat ekartzen badut
Antzeko izan dedila.
- (8) Nik zortzi bertso jarri dizkiot
Omenaldi bat bezala
Ze asto ona izandua den
Jendeak jakin dezala.
Lehenago zegon laneko sasoiz,
Orain hezur ta azala.
Dena egia esan dizuet,
Gauza horrelaxe zala
Ta zerbait gaizki egin badiot
Astoak barka nazala.

Herriko zein parranda duzu egun gustokoen? Zergatik?



NAIARA LIZASOAIN

Feri Eguna. Herri guzia orohar baserritarrez jantzia atetzen da, lehengo garaiak oroitzuz.



AITOR LUJANBIO

Inauteritako Astelehena. Baserriz baseri oso ongi pasatzen delako.



MAIALEN UITZI

Gazte Eguna: Gaztek guk guretzat antolatzen dugun egun bat delako, aurrelanketan ta parrandan bietan parte hartzen dulako.



JESÚS MARIA APEZETXEA

Amabirgin Eguna: Entzierroa ordun zaten da eta zezenak ikarri gustatzen zaizkit.



MILA APEZETXEA

Txinoko festak. Oso berexiak dialako, herriko jendea bakarra izaten delako.



BAKARTXO HUICI

Amabirgin bezpera: Koadrila guztia elkartzen ga, ta festa guzik aurretik gelditzen dia.



JABIER APEZETXEA

Kinton Eguna: Aspaldi elkartu gabeko lagunakin elkartzen galako eta oso ongi pasatzen dugu kontu zaharrak oroittuz.



JOSE ANTONIO APEZETXEA

Amabirgin Laugarrena: Zaharren eguna delako ta peña ere ongi ikusten dualako.



AITOR MENDIZABAL

Momentun momentukoa.



KORO ESCUDERO

Txinoko festak: Egun bat delako eta nere auzoko jaiak dialako.



ZURE TXANDA

AUO



Zenbat denbora daramazu Goizuetan?

Lau urte gutxi gorabehera

Zerk ekarri zaitu goizuetara?

Gaztetxeko 15. urteurrenera jotzera etorri nintzen eta beitu nun nagoen oaindiño.

Bizkaiko kostako herri "potente" batetik Nafarroako herritxo batera. Alisa egokitu al zara?

Noski. Kontuz! Herri txikia baiño Nafarroako potenteena.

**Nola asetzen duzu zure "Lekeitiartasun mo-
noa"?**

Iberoko hondartzan bainu fresko bat hartuz adibidez.

Goizuetako euskara errez ulertzen al duzu?

Buff!! Bai, trago batzuk eranda errezago ulertzen dut.

Eta Goizutarrek zure euskara?

Askontzako kostaldeko indio bat naiz.

Integratua sentitzen al zara?

Gutziz!!!! Kuadrila barria baino betikoa balitz bezala.

Zer diozu zor musikari?

Dana, baina berak niri be bai.

Gaur egun musika zer da zuretzat, afizio bat edo zerbait gehiago?

Freno gabe bizitzeko tresna bat.

Entsaiotarako nola moldatzen zara Goizuetan biziz?

Eskerrak neuk be gaztetxe zatitxo bat okupatu duten.

**Eraikuntzari lotua dago zure ofizioa. Nola gain-
ditzen ari zara krisia?**

Andamiotik eszenatokira eta eszenatokitik andamiora buelta salto ta buelta.

**Goizuetarrek estimatzen zaituztela uste al du-
zu?**

Espero dut baietz....

**Ze itxura hartu zenion Goizuetari lehenengo al-
diz etorri zinenean?**

Lekeitiora etorri zitzaigun leienda egia zela: Ze nolako neskak!!!

Gorka Irazusta Lujanbio



**Zu bezalako Goizuetar peto bat zerk eraman
zuen Oiartzuna bizitzera?**

Ni biño bikote eoskorroa harrapatzek

**Goizuetan ez bizitzearekin, zer edo zer galdu
duzula iruditzen al zaizu?**

Noski, herri bat uzten tzun demon beti galtzen tzo zerbette. Nahiz ta asteburutan edo noizen behinka torri, herrin bizi zaen demon herrikin daukizun lotura zuzen hori, herria uzten zun demon, galdu itten tzo.

**Baina Oiartzunen bizitzean ere, zer edo zer ira-
baziko zenuen?**

Goizutakin galdu duan lotura zuzen hori, Oiartzunekin irabazi dut; inguru berria, lagunarte berria, beste herri giro bat...

**Aita bihurtu berria zara. Horrek ere bizia alda-
tuko zizun?**

Honek bai kanbitu dila. Oainarte biño gehixio eon beharko diu itxen hemendik aurrera

**Gustatuko al litzazuke zure semeak Goizuetar-
tasun puntu bat sentitzea?**

Dudik gabe. Saiatuko naiz behintzat.

Eta zer egingo duzu horretarako?

Lehenbiziko gauza, goizutarraz hitzein, berak ere goizutarraz hitzein dezan. Ta gero herrira maiz xamar torri, bera ere herrin gustora sentit- zeko. Bera Goizutan gustora ibiltzek ingo do goizutartasun puntu bat izatea.

**Mantentzen al duzu harremanik Goizuetako mu-
gimendu sozial, politiko eta abarrekin?**

Oso gutxi. Azkenen herri baten edozein mugimen- tutan parte hartu edo aktibo xamarra izateko, herri hortan bizi behar tzo. Zure egunerokotasuna bertan in behar tzo. Herrin dauden gabezik edo arazok bizi in behar dia, ahal den soluzioik hobek- nak emateko. Uain Oiartzungo arazok bertotik bi- zi ttut ta hoik konpontzen saiatzen ga. Jajaja.

**Identitate krisirik somatu al duzu, hemen Oiart-
zuar bezala eta han Goizutar bezala ikusten zai-
tuztela iruditzen alegia?**

Identitate kirisik ez, biño Oiartzunen beti izan- go naiz goizutarra ta Goizutan beti oiartzuarra. Nahiz ta ni leku guzitan goizutarra sentitzen nitzan.